



**ZUZENDARITZA BATZORDEKO 2013KO ABENDUAREN 10KO 01/12-2013 AKORDIOA,
HAURRESKOLAK PARTZUERGO PUBLIKOAN HEZITZAILEEN MERITUEN
BAREMAZIOA/BIRBAREMAZIOA FINKATZEN DUENA**

SARRERA

2003ko abendutik, urtero egin dira hainbat baremazio/birbaremazio, eta, haietako bakoitzean, Zuzendaritza Batzordeak erabakitako araudia aplikatu da, eta, beraz, kasu bakoitzean barematzeko irizpide desberdinak kontuan hartu dira. Horren ondorioa izan da zerrenda berean dauden hautagaien merituek barematzeko irizpide desberdinak erabili izan direla baremazioaren deialdiaren arabera.

Haurreskolak Partzuergoak, 2009ko iraileko baremazioaren bidez, baremazio guztietan erabilitako irizpideak bateratu zituen.

Geroztik, Haurreskolak Partzuergoko Zuzendaritza Batzordeak 2011ko urriaren 19ko 01/10-2011 Erabakiaren bidez, ordezkapenentarako hautagaien zerrendak ixtea erabaki zuen 2010ko urriaren 28tik aurrera.

Horrenbestez, baremazio/birbaremazio prozesuaren deialdi berri honetan egun zerrendan ez dauden hautagaiak ezin dute parte hartu, Haurreskolak Partzuergoan hezitzaile lanean aritu direnak eta araudi honen bestelako baldintzak betetzen dituztenak salbu.

Deialdi honen bidez eta aipatu araudiaren irizpideak jarraituz, baremazio/birbaremazio prozesu berria irekitzen da.

Hau honela, egun 2013ko urtarrilaren 6ko zerrendan dauden hautagaiei birbaremazio prozesua aplikatuko zaie, hau da, soilik barematuko zaizkie aurkezten dituzten dokumentazio berriak edo aurreko baremazio/birbaremazio prozesuetan aurkeztu ez diren dokumentuak (beti ere araudian barne sartzen badira). Aurreko baremazio prozesuetan aurkeztu eta barematutako meritoak ez dira berriz ere kontutan hartuak izango.

Baremazio/birbaremazio prozesu honetan **2014ko urtarrilaren 12ra arteko (egun hau barne) merituek baloratuko dira**. Prozesu honetan aurkezten ez den dokumentazioa ondorengo baremazio/birbaremazio prozesuetan aurkeztu ahal izango da, baloratua izan dadin.

LEHENA: XEDEA

1.1. Deialdi honen barruan hautagai hauek guztiak sartzen dira:

- **2013ko urtarrilaren 6ko** zerrenda integratuan daudenak (birbaremazioa)
- Egun Haurreskolak Partzuergoan LEP-arteko lan kontratuarekin lanean ari diren hezitzaileak araudi honetako beste baldintza guztiak betetzen badituzte (baremazioa).

1.2. Deialdi honen xedea hautagaien hiru zerrenda independente sortzea da (Araba, Bizkaia eta Gipuzkoa), Haurreskolak Partzuergo Publikoko hezitzaileen plazak aldi baterako betetzeko eta ordezkapenak egiteko, bai eta zerbitzuak birbarematzeko ere, zerrenda horiek osatuko duten pertsona guztiei barematu/birbarematzeko irizpide berdina aplikatuz. Hau horrela, eskaini behar den lanpostuaren arabera dagokion lurralde edo zonalde eta jardun aukeraketa daukan zerrendara joko da, eta zerrenda horretan "lanerako prest" dagoen lehenengo hautagaiari eskainiko zaio lanpostu hori.

1.3. Hiru zerrenden kudeaketak, herrialde bakoitzean, soilik zonalde batean edota guztietan apuntatzeko aukera zabalduko du, zonaldeak hautatzeko ondorengo banaketarekin:

1.- ARABA

1.1- IPARRALDEA:

*ARABAKO LAUTADA :

Agurain, Asparrena, Barrundia, Donemiliaga, Alegria-Dulantzi eta Iruña-Oka.

*KANTAURI ARABARRA:

Aiara, Amurrio, Artziniega, Laudio eta Okondo.

*GORBEIALDEA:

Aramaio, Legutio, Urkabustaitz, Zigoitia eta Zuia.

*GASTEIZKO HAURRESKOLAK:

Arana, Aranbizkarra, El Pilar, Gloria Fuertes, Ibaiondo, Lakuabizkarra, Landaberde, Txagorritxu, Txantxangorri y Virgen Blanca.

1.2.-HEGOALDEA:

*ARABAKO IBARRAK:

Erriberabeitia, Erriberagoitia eta Berantevilla

*ARABAKO MENDIALDEA:

Bernedo, Kanpezu eta Arraia-Maeztu.

*ERRIOXA ARABARRA:

Bastida, Eltziego, Laguardia, Oion eta Samaniego.

*GASTEIZKO HAURRESKOLAK:

Ariznabarra, Galtzagorri, Gurutzmendi, Henrike Knörr, Izarra, Kattagorri. Mariturri, Ortzadar, Salburua eta Tximeleta.

2.- BIZKAIA

2.1.-EKIALDEA:

*URIBE KOSTA-MUNGIALDEA:

Arrieta, Bakio, Berango, Gatika, Getxo, Gorniz, Leioa (Altzoan, Artatza), Meñaka, Mungia, Plentzia, Sopela eta Urduliz.

* TXORIERRI:

Derio, Erandio (Alzaga, Astrabudua, Erandiogoikoa), Larrabetzu, Lezama eta Zamudio.

* BILBO:

Cervantes, Francisco Goya, Matiko, Mina del Morro eta Zamakola,

* ETXEBARRI:

Bekosolo eta Zintiruri.

* GALDAKAO:

Bizkai, Katamar eta Obaba.

2.2.-MENDEBALDEA:

* NERBIOI-IBIAZABAL:

Arrankudiaga, Arrigorriaga, Basauri (Etxeko Kuttuna eta Etxeko Seine), Orozko, Ugao-Miraballes, Urduña, Zaratamo, Zeberio.

* EZKERRALDEA-ENKARTERRIAK:

Abanto, Alonsotegi, Balmaseda, Karrantza, Muskiz, Ortuella, Portugalete, Santurtzi (Emilia Zuza, Mirabueno), Sestao (Markonzaga, Vista Alegre) eta Zalla.

*BILBO:

Basurto, Arangoiti, Deusto, Elejabarri, Miribilla, San Francisco, San Inazio eta Zorrozoiti

2.3.-HEGOALDEA:

* DURANGALDEA ETA ARRATIA-ZORNOTZA:

Abadiño (Matiena, Zelaieta), Arantzazu, Areatza, Artea, Atxondo, Bedia, Berriz, Dima, Durango, Elorrio, Ermua, Igorre, Iurreta, Lemoa, Mallabia, Mañaria, Otxandio, Zaldibar, Zeanuri eta Zornotza

* BUSTURIALDEA ETA LEA-ARTIBAI:

Aulesti, Bermeo Berriatua, Busturia, Ea, Etxebarria, Gauegiz-Arteaga, Gernika (Allende Salazar, Barrutia), Ibarrangelu, Ispaster, Lekeitio, Markina, Mundaka, Muxika eta Ondarru.

3.- GIPUZKOA

3.1.- EKIALDEA:

* DONOSTIALDEA ETA OARSO-BIDASOA:

Astigarraga, Donostia (Aitor Egia, Antiguu-Landetxe, Ategorritxo, Bidebieta, Harri Berri, Igeldo, Loiola, Roteta, Urbieta-Urdaneta), Errenteria(Goialde, Uztargi), Hernani, Hondarribia, Irun (Ikastola Txiki, Iraun) Lasarte-Oria, Lezo, Urnieta eta Pasaia.

3.2.- MENDEBALDEA:

* UROLA-KOSTA ETA DEBA (BEHERA ETA GARAIA):

Aia, Aizarnazabal, Antzuola, Arrasate (Bedoñabe, Musakola), Azkoitia, Azpeitia, (Urrestilla, Uztaro), Beizama, Bergara, Deba, Eibar (Amaña, Arrate eta Orbea), Elgeta, Elgoibar, Errezil, Eskoriatza, Getaria, Mendaro, Mutriku, Oñati, Orio, Soraluze, Zarautz, Zestoa (Arroa Behea, Ekain), Zumaia (Arrangoleta, Eskola txikia)

3.3.- HEGOALDEA:

* TOLOSALDEA ETA GOIERRI:

Albiztur, Alegia, Alkiza, Altzo, Amezketa, Anoeta, Asteasu, Ataun, Baliarrain, Beasain, Berastegi, Berrobi, Elduain, Ezkio-Itsaso, Gabiri, Gaintza, Ibarra, Idiazabal, Ikaztegieta, Irura, Itsasondo, Larraul, Legazpi (Itxaropen , San Juan) , Legorreta, Lizartza, Mutiloa, Olaberria, Orendain, Ormaiztegi, Segura, Tolosa, Urretxu-Zumarraga, Villabona, Zaldibia, Zegama, Zerain, Zizurkil.

BIGARRENA: HAUTAGAIK BETE BEHARREKO BALDINTZAK.

Hautagaiak ondorengo baldintza orokorrak, titulu eta hizkuntza eskakizunaren baldintzak bete eta kreditatu beharko dituzte, eskaerak aurkezteko epea bukatu baino lehen edo beti ere eskaerak aurkezteko epea bukatzen den egunean.

2.1. Deialdi honetan onartua izateko baldintza orokorrak:

- a) Espainiar Estatuko herritartasuna izatea, edo Europar Batasuneko nahiz Europako Ekonomia Esparruko beste edozein estatu kideri dagokiona, edo aske zirkulatzeko langileen eskubidea edukitzea, Europar Batasuneko Tratatuaren arabera, edo Espainiako Estatuak berretsitako beste tratatu batzuen arabera, edo eskubide hori lege-arau bidez onartua izatea.

Honako hauek ere parte hartu ahal izango dute: espainiarren ezkontideak, Europar Batasuneko gainerako estatu kideetako bateko nazionalen ezkontideak, eta, Europar Batasunak egindako eta Espainiako Estatuak berretsitako nazioarteko tratatuen bidez, aske zirkulatzeko langileen eskubidea aplikagarria den estaturen bateko nazionalen ezkontideak, betiere zuzenbidez bananduta ez badaude, hala nola haien eta ezkontidearen ondorengoek, 21 urtetik beherakoak badira, edo adin horretatik gorakoak izan eta haien kontura bizi badira.

Era berean, Espainiako Estatuan bizi diren eta aurreko paragrafoetan aipatu ez diren atzeritarrek ere parte hartu ahal izango dute. Horretarako, egiaztatu beharko dute kontratuaren xede den jarduera egiteko administrazio-baimenaren jabe direla.

- b) Hamasei (16) urteak beteak izatea, eta derrigorrezko erretiroa hartzeko, oro har, erabakitako adina oraindik ez izatea.
- c) Hezitzaileen berezko zereginak normaltasunez betetzeko beharrezko gaitasun psikofisikoa izatea. Haurreskolak Partzuergoak kontratatu beharrezko langileei Mutualitateak aldez aurretik azter ditzala eskatu ahal izango die, aurretik lantokien arteko Lan eta Osasun Batzordea entzun beharko duelarik.
- d) Zerbitzutik bereizi ez izana, diziplina-espeditate bidez, edozein hezkuntza-zerbitzutik edo herri-administrazioetik, ez eta irmoki ezgaituta egotea ere. Beste estatu bateko nazionala izanez gero, ezgaituta edo balio bereko egoera batean ez egotea, ez eta bere estatuan Funtzio Publikoan sartzea eragozten dion diziplina-zigorpean edo zigor-kondenapean egotea ere.
- e) Indarreko araudiaren arabera, legezko ezgaitasuna edo bateraezintasuna dakarren arrazoirik ez egotea, betiere araudiak aukera egiteko ematen duen eskubidea izanik.

2.2. Ikasketa-tituluak:

Haurreskolak Partzuergoan plaza hutsak betetzeko zerrendetan sartzeko, nahitaezkoa izango da honako titulu hauetakoren bat izatea, horiek emateko eskubideak ordainduta izatea edo horiei dagozkien gaitasun-agiriak izatea:

- haur-hezkuntzako irakasle-titulua
- haur Hezkuntzako gradoa
- haur-hezkuntzako goi-mailako teknikaria titulua
- haurtzaindegietako teknikari espezialista titulua

Baldintza gisa, ez du baliorik izango EAEn, landa-inguruetan –Europako Batzordeak 2001eko martxoaren 14an hartutako erabakian zehaztuta–, 0-3 urteko adin txikikoak zaintzen dituzten haur-eskoletan eta/edo landa-inguruetako hezkuntza- eta laguntza-zerbitzuetan hezitzaile aritzeko egiten den homologazio-ikastaroak.

Ez dira kontuan hartuko eskatutako tituluen edo eskubideak ordaindu izanaren ziurtagiriarekin batera bidaltzen ez diren eskabideak.

Ikasketa-titulua konpultsatutako fotokopia bidez egiaztatuko da, edo, parekatzeko, kopia bat eta haren jatorriko dokumentua aurkeztu beharko da.

2.3. Hezkuntzako 2. hizkuntza-eskakizuna, EGA edo horien baliokideren bat izatea (informazio gehiago nahi izanez gero, ikus apirilaren 3ko 47/2012 Dekretua, 74 zenbakiko EHAA, 2012ko apirilaren 16koa eta azaroaren 9ko 297/2010 Dekretua, 219 zenbakiko EHAA, 2010eko azaroaren 15koa).

Euskara-titulua konpultsatutako fotokopia bidez egiaztatuko da, edo, parekatzeko, kopia bat eta haren jatorriko dokumentua aurkeztu beharko da.

HIRUGARRENA: BAREMATU ETA BIRBAREMATZEKO IRIZPIDEAK ETA JUSTIFIKATZEKO DOKUMENTAZIOA.

Xedapen honetan ezarritako baremazio/birbaremazio-irizpideak deialdi honetan bakarrik aplikatuko dira.

3.1.- Esperientzia (2014ko urtarrilaren 12ra arte, hau barne)

- a) Haurreskolak Partzuergoan hezitzaile-lanetan egindako zerbitzuak: **0,01 puntu lan egindako egun bakoitzeko.**

Lanaldi partzialean egindako lanek, puntuazioari dagokionez, lanaldi osokoen baremazio bera izango dute, hau da, **0,01 puntu lan egindako egun bakoitzeko.**

Haurreskolak Partzuergoan lana egindako ordezkoez, ikasturte bakoitzean zehar gutxienez 165 lan egunetan aritu diren hautagaiei, beti ere abuztuko hilabetean kontraturik egon ez direnei, kurtsu bakoitzeko 0,31 puntu lortuko dituzte.

Barematu beharreko aldiaren Haurreskolak Partzuergoaren zentroetan egindako zerbitzuak ofizioz barematuko dira.

- b) Baimendutako haur-eskoletan edo haurtzaindegietan **haur-hezkuntzako hezitzaile** edo **haur-hezkuntzako irakasle** lanetan egindako zerbitzuak: **0,005 puntu lan egindako egun bakoitzeko.**

Lanaldi partzialean egindako lanek, puntuazioari dagokionez, lanaldi osokoen baremazio bera izango dute, hau da, **0,005 puntu lan egindako egun bakoitzeko.**

Haurreskolak Partzuergoarenak ez diren zentroetan egindako zerbitzuak egiaztatzeko, derrigorrezkoa izango da ondorengo 2 ziurtagiri hauek aurkeztea:

- **lan-bizitza** eguneratua, zerbitzuak benetan egin direla frogatu beharko du.
- **enpresa kontratatzailearen burututako zerbitzuen ziurtagiria** **-ez da kontraturik onartuko-**; azken agiri horrek **haur-hezkuntzan hezitzaile edo irakasle** aritu dela ziurtatu beharko du. Atal honetan, **ez da onartuko parora eramaten den enpresa ziurtagiria, non kotizazio oinarriak azaltzen diren.**

Lan bizitzan azaltzen den enpresa kontratatzaileak eta enpresa ziurtagiria izenpetzen duen enpresak berdina izan behar du. Hau horrela izan ezean ez da lan esperientzia frogatutzat emango, eta ondorioz ez dira meritu hauek baloratutako izango.

Haurreskolak Partzuergoarenak ez diren zentroetan izandako esperientzia eskatutako bi dokumentu horien (lan-bizitzaren eta enpresaren ziurtagiriaren) bidez ziurtatzen ez dutenei ez zaie baloratuko haietan izandako esperientzia, hurrengoko kasuan izan ezik: egun enpresa edo entitateak itxita badaude jarduera ekonomikorik ez dutela, interesdunek lan kontratua eta lan-bizitza aurkeztu beharko dute. Lan esperientzia baloratua izango da soilik lan kontratuaren xedapenak argiak, zehatzak eta zentzubakarrekoak badira. Kasu honetan, interesdunak zentroa itxita dagoela idatziz azaldu behar du.

Garairen batean leku bat baino gehiagotan egin bada lan, aldekoena soilik hartuko da kontuan.

3.2.- Ikasketa-tituluak. (2014ko urtarrilaren 12an edo lehenago lortutakoak)

Zerrendetan izena eman ahal izateko aurkeztutako baldintza orokorrek, hau da, baldintza orokor bezala aurkeztutako titulu eta hizkuntza eskakizunaren ziurtagiriek ez dute puntuak lortzeko balio.

Hurrengo ikasketa tituluak baloratuko dira beti ere baldintza bezala zerrendan sartzeko aurkeztutako titulazioez apartekoak baldin badira, eta hurrengoko baremoarekin:

a)	Irakaslea Haur Hezkuntzan - Diplomatura	1 puntu
b)	Irakaslea Haur Hezkuntzan - Gradoa	1 puntu
c)	Haur-hezkuntzako goi-mailako teknikaria	1 puntu
d)	Haurtzaindegian espezializatutako teknikaria	1 puntu
e)	Gaikuntza Haur Hezkuntzan	1 puntu
f)	Psikologia - lizentziatura / Gradoa	1 puntu

g)	Pedagogia – Lizentziatura / Gradoa	1 puntu
h)	Psiko-pedagogia lizentziatura	1 puntu
i)	Irakasle diplomaturetan beste espezialitateren bat	0.5 puntu espezialitate bakoitzak
j)	Irakaslea Lehen Hezkuntzan - Gradoa	0.5 puntu
k)	Haur Hezkuntza edo eta Lehen Hezkuntzako minorrak	0.5 puntu minor bakoitza

IRAKASLE DIPLOMATURAK

- 1.- Atzerriko Hizkuntza
- 2.- Heziketa Berezia
- 3.- Heziketa Fisikoa
- 4.- Lehen hezkuntza
- 5.- Musika hezkuntza
- 6.- Entzumena eta Mintzaira

MINORRAK

- 1.- Haur Hezkuntza Tailerrak
- 2.- Euskara, hezkuntza tresna
- 3.- Atzerriko Hizkuntza
- 4.- Heziketa Berezia
- 5.- Berrikuntza Proiektua
- 6.- Adierazpena eta komunikazioa dramatizazioaren bidez
- 7.- Kulturartekotasuna
- 8.- Hizkuntzen trataera bateratua
- 9.- Irakurzaletasuna eta liburutegia
- 10.- Gorputz Hezkuntza
- 11.- Berrikuntza Haur Hezkuntzako Eskolan
- 12.- Musika Hezkuntza
- 13.- Hizkuntza Aniztasuna Eskolan
- 14.- Curriculum eta Baliabideak
- 15.- Berrikuntza Lehen Hezkuntzako Eskolan

Ez da puntuagarria EAEn, landa-inguruetan –Europako Batzordeak 2001eko martxoaren 14an hartutako erabakian zehaztuta–, 0-3 urteko adin txikikoak zaintzen dituzten haur-eskoletan eta/edo landa-inguruetakoko hezkuntza- eta laguntza-zerbitzuetan hezitzaile aritzeko egiten den homologazio-ikastaroa.

Atal honetan, **gehienez 3 puntu lor daitezke.**

3.3.- Eskatutako titulazioaren egiaztatze akademikoa (2.2. puntua)

Hezitzaile berak zerrendan sartzeko baldintza orokor izan daitezken titulu bat baino gehiago aurkezten baditu (haur-hezkuntzako irakasle-titulua, haur-hezkuntzako gradoa, haur-hezkuntzako goi-mailako teknikaria edo haurtzaindegiko teknikari espezialista), puntuazio altueneko ziurtagiri akademikoa hartuko da titulazio-baldintzatzat.

Espedientearen batez besteko nota agertzen den ziurtagiri akademikoetan, betiere nota hori hartuko da. Espedientearen batez besteko nota ez bada agertzen, hori lortzeko, hurrengo baliokidetasunak erabiliko dira, ikasgai bakoitzaren kalifikazioak hitzez adierazita badaude:

Ohorezko matrikula – 10, Bikain – 9.5, Oso ongi – 8, Ongi – 6.5, Nahiko, Gaindituta, Baliozkotuta, Gai – 5.5

Batez bestekoaren notaren arabera, eta hurrengo taula honi jarraiki, kasuan kasuko puntuazioa emango da:

9-10.....	1 puntu
7-8.999.....	0.75 puntu
6-6.999.....	0.50 puntu
5-5.999.....	0.25 puntu

Ziurtagiri akademiko pertsonala ez bada bidaltzen eta haren ordezkariaren titularen fotokopia konpultsatua aurkezten bada, edo titularen igortze-eskubideak ordaindu direlako ziurtagiriarena, hautagaiak lortutako batez besteko nota nahiko dela ondorioztatuko da.

3.4.- Lanaldi- eta lurralde aukeraketak eta hauen aldaketa eskaerak.

Lurralde bakoitzak (Araba, Bizkaia eta Gipuzkoa) bere zerrenda independentea dauka eta bakoitzaren kudeaketa independentea da.

Zerrendetako hautagai guztiek (bai barematutako zein ez barematutako hautagaiek), Haurreskolak Partzuergoan lanaldi- eta lurralde-aukerari dagokienez gaur egun dauden datuak aldatzeko eskatu ahal izango dute, eskabideak aurkezteko emandako epearen barruan. Epe hori igaro ondoren, prozesutik ateratzen den barematutako zerrendako kideek **ezingo dituzte datu horiek berriz aldatu**, harik eta hurrengo birbaremazioa egin arte.

Horrela, 3.1 atalean dauden zonaldeak indarrean sartuko dira baremazio honen ondoren.

3.5.- Eskabidean edo dokumentazio egindako akatsen zuzenketa

Baremazio/birbaremazioa egiteko eskatzen den dokumentazioan forma-akatsak daudela, edo merituen balorazioa egiteko aurkeztu diren dokumentuetan akatsak daudela, interesdunak akatsa zuzentzeko edo eta aurkeztu beharreko agiriak aurkezteko aukera izango du. Akatsen zuzenketa egiteko epea hautagaien behin-behineko zerrendaren aurkako erreklamazio epea izango da.

LAUGARRENA: ZERRENDAK EGITEKO PROZEDURA ETA BALDINTZAK

4.1. Prozedura.

4.1.1. Eskabideak aurkezteko lekua: Haurreskolak Partzuergoaren egoitzan.

4.1.2. Epeak: **Eskabideak 2014ko urtarrilaren 27etik 2014ko otsailaren 7ra bitartean** aurkeztu beharko dira; bi egunak barne.

4.1.3. 2014ko urtarrilaren 12ra arteko merituen hartuko dira kontutan, egun hori barne.

4.1.4. Eskabideak aurkezteko modua. Eskabideak erantsitako dokumentuaren arabera aurkeztuko dira eta eskabide bakoitzaren **bi ale** aurkeztu beharko dira.

Edozein dokumentazio aurkezteko eta onartzeko DERRIGORREZKOA da ESKAERA ORRIA beteta eta NAN-aren fotokopia aurkeztea.

EZINBESTEKOA da aurkezten den dokumentazio guztiaren fotokopia konpultsatuak edo bestela originalak eta hauen fotokopiak eramatea.

4.2. Puntuazio bakarra eta hautagaien ordena.

Hautagaiak, zerrendan, puntuazio handienetik txikienera ordenatzen dira; puntuazioa argibide hauetan adierazitako baremoa aplikatu ondoren lortutakoa izango da.

4.3. Puntu-berdinketak gertatuz gero, hauek hausteko irizpideak.

Egungo baremazioan puntuazioen gutzizkoan berdinketak gertatuz gero, hauek hausteko eta hautagai hauen hurrenkera erabakitzeko, ondorengo irizpideak jarraituko dira:

- Puntuaziorik altuena 3.1. atalean.
- Oraindik ere berdinketa izanez gero, 3.1.a) ataleko puntuaziorik altuena hartuko da kontuan.
- Oraindik ere berdinketa izanez gero, 3.2. atala hartuko da kontuan.
- Azkenik, eskatutako titulazioaren ikasketa-ziurtagiria, 3.3. atalean adierazitako moduan.

Oraindik ere berdinketa badago, eta berdinketa hausteko, abizenen eta izenaren orden alfabetikoa erabiliko da azken irizpide moduan. Letra bat zozketatuko da, eta puntuazio bereko hautagaiak letra horretatik hasiko dira alfabetikoki ordenatzen.

4.4. Indarraldia.

Deialdi honetatik ateratzen den zerrendak aurreko deialditik ateratakoa ordezkatzeko du. Honela, behin betiko zerrenda argitaratu eta hurrengo egunean sartuko da indarrean.

Behin betiko zerrenda argitaratu eta indarrean sartu ondoren Zuzendaritza Batzordeak eskumena edukiko du zerrenda horretan beharrezkoak diren aldaketak egiteko, Gorako Helegiteen ebazpenen ondorioz aldaketak egongo balira edo eta behin betiko zerrenda argitaratzean akats aritmetikoak egon balira.

Eskabideak aurkezteko epea bukatu eta zerrendak itxita mantenduko dira Zuzendaritza Batzordeak bestelako erabakirik hartu arte.

Maite Larrañaga Orbea
Haurreskolak Partzuergoko idazkaria

Cristina Uriarte Toledo
Haurreskolak Partzuergoko lehendakaria

1. ERANSKINA: ESKABIDE-ORRIA

Haurreskolak Partzuergo Publikoko lanpostu hutsak eta ordezkapenak hornitzeko deialdia

1. **Datu pertsonalak**

Izen Abizenak: _____

Jaiotze Data: _____ **N.A.N.:** _____

Helbidea: _____

P.K.: _____ **Herria:** _____

Lurraldea: _____

Tlf. Mugikorra: _____ **Tlf. Finkoa:** _____

E-maila : _____

2. **Lurralde eta Jardunaren aukeraketa** (aukera bat baino gehiago marka daitezke)

LURRALDEA	ZONALDEA	LANEKO JARDUNA	
		OSOA	PARTZIALA
ARABA	IPARRALDEA		
	HEGOALDEA		
BIZKAIA	EKIALDEA		
	MENDEBALDEA		
	HEGOALDEA		
GIPUZKOA	EKIALDEA		
	MENDEBALDEA		
	HEGOALDEA		

3. **Baldintza Orokorrak:** Markatu gurutze batez.

Haur-hezkuntzako Irakaslea - Diplomatura	
Haur Hezkuntzako Irakaslea - Gradoa	
Haur-hezkuntzako Goi-mailako Teknikaria	
Hurtzaindegian Espezializatutako Teknikaria	
Homologazioa / Gaikuntza	

2. Hizkuntza-eskakizuna	Bai	
-------------------------	------------	--

4. **Ikasketa-tituluak:** Markatu gurutze batez.

Irakaslea Haur Hezkuntzan - Diplomatura	
Irakaslea Haur Hezkuntzan - Gradoa	
Haur-hezkuntzako goi-mailako teknikaria	
Hurtzaindegian espezializatutako teknikaria	
Homologazioa / Gaikuntza	
Psikologia - lizentziatura / Gradoa	
Pedagogia - Lizentziatura / Gradoa	
Psiko-pedagogia Lizentziatura	
Irakasle diplomaturetan beste espezialitateren bat	
Haur Hezkuntza edo eta Lehen hezkuntzako minorrak	
Irakaslea Lehen Hezkuntzan - Gradoa	

Data eta sinadura

* Langileei jakinarazi nahi zaie, Datu Pertsonalaren Babeserako 15/1999 Lege Organikoaren arabera, beren datu pertsonalak fitxategi batean gordeta daudela. Fitxategi horren titularrak eta arduraduna Haurreskolak Partzuergoa da, Otaola Hiribidea, 29. zenbakian helbideratua, Eibarren (Gipuzkoa), 20600 pk.

Datu pertsonalaren tratamenduaren helburua Haurreskolak Partzuergoko langileen lan-gestioa da. Era berean, Haurreskolak Partzuergoak jakinarazten du bere langileen datu pertsonalak beharrezkoak direla langile, Gizarte Segurantza eta Ogasun Publikoarekiko soldata, gizarte segurantza eta zerga-betebeharrak betetzeko. Eta bidaiari-gastuetan dagozkien egiaztapenak justifikatu eta egiteko.

Horrez gain jakinarazi nahi zaie tratatuko diren beren datu pertsonalen inguruko informazioa jasotzeko eskubidea dutela, eta baita datuak zuzendu, horiei aurka egin edo indargabetzeko ere, indarrean dagoen legediak diotenaren arabera. Aipatutako helbidera idatzi bat edo haurreskolak@haurreskolak.net helbidera mezu elektronikoko bat bidaliko da edo idazkaritzan eskatu daitezke.

Dokumentu honen bidez, gainera, nire lan-osasunaren datu pertsonalak tratatzeko berariazko baimena ematen diot Haurreskolak Partzuergoari, bertako langileen osasunaren eta gestioaren jarraipena egin ahal izateko.